

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure proiektuko kideei oso funtsezkoa eta garrantzitsua iruditzen zaie bezeroekin harreman egoki bat ezartzea. Hainbat harreman mota bereizi ditzazkegu; pertsonala edo automatizatua izan daiteke eta guk horien bien arteko nahasketa bat egitea erabaki dugu. Hau da, teknologia erabili zerbitzuak emateko, baina baita aurrez aurreko eta harreman pertsonalari garrantzia emango diegu, laguntza pertsonala eskainiz edozein momentuan.

Harreman osasuntsu bat sortu nahi dugu bezero edo kontsumitzaile berriak lortzeko eta enpresak ahalik eta bezero gehiago lortzeko eta lortutakoak mantentzeko. Baina gure helburu nagusia, bezero eta hornitzaileen arteko harremana elkartasunezkoa izatea da. Edozein pertsona gazte edo nerabe kontuan hartuz eta inor kanpoan utzi gabe.

Bezeroarekiko harremana funtsezko alderdi bat da eta, kasu honetan, hainbat udaletxe, talde etab.-en bitartez kudeatzen da. Bezeroak fidelizatu eta, saritzeaz gainera, bestelako ardurak ditugu. Esate baterako, nerabeak gizartean duen irudia aldatzeko unea iritsi da eta horrela, modu praktiko eta herrian lagungarria izan daitekeen moduan zerbitzu ezberdinak eskainiko dituzte aplikazio sozialeko programa bat bitartez. Laburbilduz, harremana funtsezko ezaugarri bat kontsideratzen dugu gure enpresan, beraz, sendoa zein egokia izatea bilatzen dugu. Hau da, elkartasuna eta konfiantza bermatuz.